




Global express

Gaurkotasuna ikasgelan

Salbatuko ote gaitu Kyotok? _____



*Houston,
arazo bat
duzue!!*



1. Norentzat da estralurtarren mezua?
2. Zein arazotaz ari dira?

2. Igelak




«Gertaerek erreakzionarazten diete gizakiei –eta gobernuei–, ez prozesuek. Txernobilen eta Bhopalen gertatukoaren eta inbasioen aurka egiten dute gizakiek; ez, ordea, hondamendi horiek eragiten dituzten aspaldiko zergatien kontra. Biologoek ezaguna dute esperimantu hau: ur beroa duen azpil batean igel bat jarri behar dugu. Eta, noski, igelak salto egiten du. Baina igela ur hotzez betetako azpil batean uzten badugu, eta ura pixkanaka-pixkanaka berotzen badugu irakite-punturaino, igela uretan geldituko da. Ez badugu ateratzen, bizirik egosiko da, naturak ez baitio eman tenperatura-aldaketa txikiak sentitzeko dohainik.

GEORGE, Susan, El bumerang de la deuda, Deriva, Intermon bil., 2. zk., 1993, orr. 96 eta 97.

3. Jakin badakigu azterlan zientifikoek zer dioskuten: gizakion jardueragatik, azkar eta 'modu ez naturalean' ari da aldatzen Lurreko klima. Hala ere, ez dugu jokabidez aldatzen, ez dugu salto egiten. Zergatik jokatzen dugu igelek bezala?


4. Pentsatu hiru minutuz ea klima-aldaketa dela-eta igelek bezala jokatzen duzun ala ez, eta zergatik jokatzen duzun horrela. Bakoitzak bere erantzuna idatzi behar du.

- Gero, bospasei minutuan, bildu gelako hiruzpalau lagunekin eta bateratu erantzunak. Testu bakarra idatzi behar duzue denon artean.
- Azkenik, egin gauza bera gelako ikaskide guztiak bilduta.



Gehien poluitzen duten herrialdeak	CO ₂ -aren emisioak (mila tonatan) 2002. urtean	Per capita emisioak (tonatan) 2002. urtean
Alemania	804.721	9,8
Saudi Arabia	340.555	15,0
Australia	356.342	18,3
Brasil	313.757	1,8
Kanada	517.157	16,5
Txina	3.513.103	2,7
Espainia	304.603	7,3
Estatu Batuak	5.844.042	20,2
Frantzia	368.315	6,2
India	1.220.926	1,2
Indonesia	306.491	1,4
Iran	360.223	5,3
Italia	433.018	7,5
Japonia	1.203.535	9,4
Mexiko	383.671	3,7
Erresuma Batua	543.633	9,2
Koreako Errepublika	446.190	9,4
Hegoafrika	345.382	7'4
Ukraina	306.807	6'4

3. Inurriak eta elefanteak



Klima-aldaketaren ondorioetako bat da itsasoaren maila igoko dela, planeta berotzeak izotza baitakar. Kalkuluaren arabera, 1.000 milioi lagunetik gora bizi dira itsasoaren mailan, batez ere, herrialde pobreetan, baliabiderik ez dutenetan.

Tuvalun –gutxien garatutako 50 herrialdeetako bat (GGH) da– dagoeneko hasi dira fenomeno hori jasaten. Tuvaluko 11.500 biztanleek herrialdetik alde egin beharra daukate, itsasoko urak lurra hartzen ari baitira (Ozeano Pazifikoko bederatzi koralezko atoloi). Herrialde horretan, 4,5 metro ditu lekurik altuenak. Tuvaluko herritarrek asiloa eskatu diete Australiari eta Zeelanda Berriari, baina uko egin diete bi herrialde aberats horiek.



© www.tuvalu.islands.com/ Shuichi Endou

(C) Shuichi Endou

ITURRIA: <http://www.periodistadigital.com/object.php?o=22268>



© Reuters/Stringer, www.alernet.org

Teburoro Titok, Kiribatiko presidentea (Ozeano Pazifikoko beste herrialde bat), horrela deskribatzen du egoera: “putzu bateko uren gainean dagoen hostoan aterperatzen diren inurriak gara, eta elefanteak edatera eta saltoka ibiltzera joaten dira putzu horretara. Arazoa ez da inurrien jokabidea, baizik eta nola behartu elefanteak kontu handiagoz aritzera”.

ITURRIA: Una bomba de tiempo, Vandana Shiva:
www.tierramerica.net/2002/0624/grandesplumas.shtml
Web orri honetan ere bada horri buruzko informazioa:
<http://www.ifrc.org/sp/publicat/wdr2002/chapter4.asp>

Jakin dugu ‘ingurumen- edo ekologia-arrazoiengatik errefuxiatu eta bizilekuz aldatu behar izan duten’ 25 milioi gizon-emakume daudela gaur egun munduan. Hau da, beren bizilekua utzi behar izan dute uholdeak, lehorteak, basamortutzeak eta abar direla medio. Aurreikuspenen arabera, izugarri handituko da kopuru hori epe laburrera, eta XXI. mendeko arazo nagusia izango da.

ITURRIA: http://guiactual.guiadelmundo.org.uy/informes/informe_73.htm

5. Irakurri arretaz Teburoro Titok egindako deskribapena, eta erantzun galdera hauei:

- Nor dira inurriak eta nor elefanteak?
- Zer arau ezarri beharko lirateke ‘elefanteok’ kontu handiagoz jardun dezagun?
- Zergatik jardun behar genuke kontu handiagoz?

4. Elefanteak eta azeriak

'Elefanteok' kontu handiagoz jardun dezagun, Kyotoko Protokoloa izeneko akordioa sinatu dute gobernariak. Karbono dioxidoaren emisioak (CO₂) –berotegi-efektuaren eragile nagusia– eta beste bost gasenak –metanoa (CH₄), oxido nitrosoa (N₂O), hidrofluorokarbonoak (HFC), perfluorokarbonoak (PFC) eta sufre hexafluoruroa (SF₆)– murrizteko akordioa da. 1990ean igorritako emisio-kantitatearen % 5,2 murriztu behar da emisioen kantitate globala 2008tik 2012ra.

Argi dago murrizketa hori nahikoa ez dela. Talde ekologista askok adierazi dute emisioen % 60 murriztu beharko litzatekeela, neurri eraginkorra izan dadin. Alabaina, aurrerapauso positibotzat jo daiteke akordioa.

Helburu definituak dituzten hogeita hamabost herrialde industrializatuak oso konpromiso desberdinak hartu dituzte: zenbait herrialdek murrizketa handiak egin behar dituzte, adibidez, Luxenburgok (- % 28), Alemaniak eta Danimarkak (- % 21); beste zenbaitek, aldiz, murrizketa ertainak egin behar dituzte, adibidez, Japoniak (- % 6); azkenik, muga jakin bateraino handi ditzaketen herrialdeak daude, adibidez, Espainia (+ % 15) eta Portugal (+ % 27).


Estatu Batuek ez dute Kyotoko Protokoloa berretsi, planeta osoko CO₂-aren emisioen % 36 eragiten duten arren.

Espainiak 2004an igorritako emisio-kantitatea 1990ekoa baino % 45 handiagoa da; hau da, hiru urte barru, protokoloa betetzeko epea hasten denean, emititu beharko lukeen kantitatearen hirukoitza.

Erregai fosilen merkatua (petrolioa, ikatza eta gas naturala) kontrolatzen duten enpresa handiek hain ahalmen handia dute, ezen gobernuari presioa egin baitiete murrizketak ahalik eta txikienak izan daitezkeen, eta mekanismo lagungarriak ezartzera behartu dituzte, murrizketak erraztearren.

Besteak beste, mekanismo hauek finkatu dira:


- Garapen garbiko mekanismoa (CDM): Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeen artean lankidetzan aritzea, gutxi poluitzen duten proiektuak martxan jartzeko. Iparraldeko herrialdeek poluitzeko eskubide handiagoa dute.
- Aplikazio bateratua (JI): gauza bera da, baina Iparraldeko herrialdeen artean, batez ere, SESB ohian.
- 'Emisio-eskubideak' erostea: Herrialde batek dagokiona baino gutxiago poluitzen badu, beste herrialde batzuei saldu ahal die poluitzeko eskubidea.
- Oihaneztatzea: basoak karbono-hustuleku gisa hartzen dira (zuhaitzek CO₂ xurgatzen baitute). Lurrak oihaneztatzen dituzten herrialdeek emisio-kuota handiagoa izango dute; izan ere, landatzen dituzten zuhaitzek xurgatzen dutena kentzen zaie.



8. Informazioa irakurri eta argazkiak begiratu ondoren, denon artean eztabaidatu galdera hauen erantzunak:

Nor dira elefanteak eta nor azeriak?

Zergatik?



ITURRIA: NASA. Lurra eta bere bere argi eletrikoa gauz.

5. Pertsonak



Pertsonen eta igelen, inurrien eta elefanteen arteko desberdintasuna da pertsonak arrazoitzeko ahalmena dugula, hau da, etorkizunean egingo ditugun ekintzen ondorioak kalkulatzeko, aztertzeko eta prebenitzeko gaitasuna dugula, edo nahi ditugun emaitzak lortzeko egin ditzakegula ekintzak.

Irudimena


7. Irakurri denok batera ariketa hau. Gero, denon artean erantzun behar diezue galderai:

A Gobernua Iparraldeko herrialde industrializatu aberats bat da, Kyotoko Protokoloa sinatu du, eta hau erabaki du nazioarteko konpromisoa betetzeko:

- Erregai fosilak erabiltzen jarraitzea energia-iturri nagusitzat, horien ordez energia berriztagarriak erabiltzea –pixkanaka-pixkanaka– sustatu eta lagundu gabe.
- Energia-kontsumoa areagotzen segitzea eta oztoporik ez jartzea enpresei –herrialdetik alde egingo lukete– eta herritarrei –protesta egingo lukete eta ez liokete gobernuari botoa emango–.
- Errepideak hobetzea, enpresek merkantziak errazago garraia ditzaten eta herritarrak errazago mugi daitezen.
- Eraikinek eta etxetresna elektrikoek energia-eraginkortasunari dagokionez bete behar dituzten eskakizunei ez ikusiarena egitea. Kontsumoa sustatzea, ekonomia haz dadin.
- Hegoaldeko herrialde pobretu bati mailegu handi bat interes txikian ematea, milaka hektarea eukalipto landa ditzaten. Horren truke, eukaliptoen zura herrialde emaileko enpresa batek papera egiteko erabiliko luke.
- “Emisio-eskubideak” erostea nazioarteko merkatuan.

B Gobernua Iparraldeko herrialde industrializatu aberats bat da, Kyotoko Protokoloa sinatu du, eta hau erabaki du nazioarteko konpromisoa betetzeko:

- Erregai fosilei dagozkien zergak handitzea eta zergak arintzea energia-iturri ez-berriztagarriak pixkanaka-pixkanaka iturri berriztagarriez ordezkatzeko enpresa eta herritarrei.
- Enpresen eta herritarren energia-kontsumoa mugatzea, eta gehiegikeriei isuna jartzea.
- Hiri-plangintza eta garraio publikoa hobetzea. Ibilgailuen zergak areagotzea, erregai-kontsumoaren arabera.
- Energia-eraginkortasunaren gutxieneko betekizunak ezartzea eraikin berriak egiteko, baita herrialde horretan erosten diren etxetresna elektrikoek ere.
- Hegoaldeko herrialde pobretu bati mailegu handi bat interes txikian ematea, herrialde emaileak garai batean herrialde pobretuan deforestatutako eremuak berriz oihanezta ditzaten zuhaitz autoktonoekin.
- “Emisio-eskubideak” saltzea nazioarteko merkatuan.



Nor da irabazle eta nor galtzaile A Gobernuak hartutako erabaki bakoitzaren ondorioz?

Eta B Gobernuak hartutako erabakien ondorioz?

Zer gobernuak du egungo gure errealitatearen antz handiagoa? Zergatik?

Bi gobernuetatik, zein gustatzen zaizu gehien zuri? Zergatik?

Errealitatea

8. Egin bi talde. Talde bateko ikasleek informazio okerra duten herritarren itxurak egin behar dituzte (baliteke zuetako zenbaitek informazio okerra izatea); beste taldeko ikasleek, aldiz, PEIT planak Kyotoko Protokolotik aldentzen gaituela uste duten ekologisten plantak egin behar dituzte. Aritu elkarrizketan, eta saiatu akordioak lortzen. Baliteke albiste hau lagungarri izatea.

Azpiegitura eta Garraio Plan Estrategikoak (PEIT) gehiago urrunduko gaitu Kyotoko Protokolotik.

PEIT planaren proposamen bat da ahalmen handiko errepide-sarea amaitzea. Horretarako, erradialtasuna zuzendu eta sare-sistema bat egiten saiatu behar da. Espainiako errepide-sareak 25.000 km ditu gaur egun. Horietatik 7.000 km autobiak dira; beste 2.000 km, berriz, bidesaria ordaindu beharreko autobideak. Autonomia-erkidegoetako beste 2.200 km autobide gehitu behar zaizkio kopuru horri. Ahalmen handiko 5.600 km gehiago eraikitzeko asmoa dago, Espainiako probintzien hiriburu guztiak autobia bidez lotzeko. Azken buruan, helburua da herritarren % 94k ahalmen handiko ardatzen bat izatea bizilekutik 30 km baino gutxiagora.

ITURRIA:

Amigos de la Tierra, Ekologistak Martxan, Greenpeace, SEO/BirdLife eta WWF/Adena elkarteek PEIT plana errefusatzeari buruzko albisteak: www.rebellion.org/noticia.php?id=12928

Ideia-jasa

9. Karbono dioxidoaren emisioak murrizteko, zer neurri ezartzeko konpromisoa har dezakegu...

- gelan
- ikastetxean
- norberak
- etxean
- auzoan edo herrian
- hirian
- autonomia-erkidegoan
- estatu osoan?

Norberak egindako ekintzak baliagarriak dira, baina ez diote gaiaren muinari askorik eragiten. Klima-aldaketaren arazoa politikoa da, azken finean; beraz, politikak konpondu behar du. Izan ere, gizartearen antolakuntzari eta erabakitzeke ahalmenari eragiten die arazoak. Lehen esan bezala, garapenaren ereduarekin lotuta dago. Beraz, aldaketek ez badute hori aintzat hartzen, alferrik gabilta, ez da arazoa konponduko.

Seguru zure auzoan, herrian edo hirian gisa horretako ekimenak bultzatzen dituzten erakundeak, taldeak edo pertsonak badaudela. Bilatu horiei buruzko informazioa.